

KATEKESIA HAURRENTZAT

FEDEAREN MISIOLARI – ZUOK ZARETE NIRE ADISKIDEAK

HELBURUAK:

- Adiskidetasunaren esanahiaren inguruan hausnartu eta adiskideak baloratu.
- Jesusen aipatzen digun adiskidetasuna nolakoa den ikusi.
- Misiolari izatea, txirotuenei adiskidetasuna, Berri Ona, maitasuna,... iragartzea dela aitortu.
- Adiskidetasunari lotutako erantzukizunaren inguruko konpromisoa zehaztu.

IKUSI

AULKIEN DINAMIKA

Aulki batzuk (taldean dauden neskato eta mutikoen kopuru bera) zirkuluan ipiniko ditugu, bizkarraldea barrurantz dutela. Abesti bat entzuten den bitartean, haurrak dantzari arituko dira zirkuluaren inguruan. Katekistak abestia isiltzeaz batera, lagun bakoitza aulki batean eseriko da. Aulki bat kendu eta berriz ipiniko da abestia eta haurrak jiraka eta bueltaka ibiliko dira dantzan. Abestia isiltzen denean, inor ez da zutik geratuko. Aulki bat falta denez, norbaitek kidearen altzoan eseri beharko du baina, hori bai, oinak lurretik altxatuta. Horrela jardungo da aulki bat bestearen ostean kenduz. Denak geratzen diren aulkietara igotzea da erronka. Ez da inor kanporatzen, elkarri lagunduko diote igotzen.

Dinamikari buruzko elkarrizketa:

- Nola sentitu zarete? Zein zailtasun izan duzue?
- Zer gustatu zaizue dinamikan? Zerbaitek haserretu zaituzte?
- Gustuko duzue taldekide izatea? Nola sentitzen zarete taldetik ateratzen zaituztetenean? Zuk kanporatu duzu inoiz inor benetako bizitzako egoeraren batean?

Partly Cloudy ipuinaren proiektzioa; esteka honetan dago: <http://www.youtube.com/watch?v=-a6Pe1ovKHg>

(Bideoa ikusteko ordenagailurik ez daukaten taldeentzat, ipuina bidaltzen dugu beste orrialde batean)

Ipuinari buruzko elkarrizketa talderako egokiak diren galderekin.

Zikoinaren eta laino grisaren arteko adiskidetasuna aztertuko dugu.

- Zer gertatu zaizu deigarrien? Nolakoa da lainoaren eta zikoinaren arteko harremana?
- Zikoinak lainoarekin duen adiskidetasuna hautsi egiten du "kumea" gero eta arriskutsuagoa dela ikustean? Zergatik?
- Zer esan nahiko luke zikoinak kaskoa eta babesa erabili behar izateak? Laino grisa haserretu eta negar egiten hasten da. Zergatik?
- Zer egin daiteke adiskidearen inguruan pentsamendu txarrik ez izateko: haserreak saihestu, ez negar eragin,...?
- Azkenean, zer da garrantzitsuena? Lainoaren eta zikoinaren adiskidetasunean, biek dute misio konpartitua: zein? Beharrezkoa da misio hori? Zergatik ez ote da haserretzen zikoina lainoarekin? Animalia guztiak (arantzurdea, krokodiloa,...) dira beharrezkoak?

Adiskidetasunari buruzko elkarrizketa:

- Nolakoa da besteekin duzun adiskidetasuna? Zein da zure adiskidearen gauzarik onena? Zer baloratzen duzu gehien?
- Zain zailtasun duzu? Nola konpontzen dituzue desadostasunak? Aipatu esperientziaren bat.

- Erabili behar izan duzu noizbait “kaskorik”? Baduzu misio konpartiturik? Zein? Nola antolatzen zarete? Ezagutzen duzu adiskiderik ez duen norbait? Zergatik ez du adiskiderik? Zergatik da garrantzitsua adiskideak izatea?

EPAITU

Jainkoaren Hitza: Joan 15, 12-17.

(*Qué lío de familia* liburutik moldatuta, Verbo Divino arg.)

Jesus hiru urte inguru egon zen bere ikasleekin. Egun batean, beraiekin hitz egiten zegoela, zera esan zien: “Hauxe da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun nadiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino”: Ikasleak harritu egin ziren, gauza bakarra esan zielako. Baina Jesusek hau gehitu zuen: “Zuek nire adiskide izango zarete...”; “neuk zintuztedan zuek aukeratu, zorioneko izan zaituzten eta zuon bizitzaren bitartez beste asko zorioneko egin dezazuen”.

Nire Aita-Ama zuen alde duzue eta berak lagunduko dizue behar duzuen guztian. Baina gogoratu: elkar maita ezazue.

Haren adiskide izanda, zer gertatuko zitzaien ere buruan bueltaka zebilkien...

Misiolariak Jesusen adiskideak dira:

Adiskidetasun horren eraginez, munduko beste leku batzuetara joaten dira Jesusekin duten adiskidetasuna konpartitzera eta ezagutzera ematera, hau da, Berri Ona iragartzera.

- Zein da misiolariak dauden leku desberdinetan hedatzen duten Jesusen mezua?
- Ezagutzen dugu gure parrokiako, eskolako,... misiolariaren bat? Horiei buruz, egiten dutenari buruz, beren bizitzei buruz dakiguna azalduko dugu...

Jesusek guri digun maitasuna zerbaitekin konparatu nahi duenean, irudi polit batekin egiten du; ikasle izatea, adiskide izatea da:

- Adiskideak beti egia diolako.
- Adiskidearengan beti konfiantza izan dezakezulako.
- Adiskideak ez zaituelako bertan behera uzten gaizki zaudenean.
- Adiskidea zurekin poztu egiten delako zorioneko zarenean.

EKIN

Adiskideekiko erantzukizuneko konpromisoa zehaztu:

- Normalean hitz egiten ez dugun ikaskideren batekin hitz egin. Inor ez dadila bakarrik geratu.
- Jesusi buruz dakigun guztia gogoratu eta Jesusek maitasunagatik besteen alde egiten dituen gauzen zerrenda egin taldean.
- Domund eguneko Eukaristia prestatuko dugu: sinboloak, otoitzak, abestiak,... (katekesian eta gelan prestatu duguna eskainiko dugu).

Taldearen arabera, beste konpromiso batzuk ere har daitezke:

- Taldeko neska-mutikoek egin ditzaketan gauza zehatzen zerrenda egin:
 - misiolari batekin harremanetan jarri internet bidez;
 - taldean ‘Gesto’ bezalako misiolari agerkari baten harpidedun egin;
 - Misioetarako Elizbarrutiko Ordezkaritza bisitatu;
 - misiolari egitasmo baterako dirua eman;
 - kurtsoan zehar parrokiaren egiten diren misiolari kanpainetan –DOMUND, Haur Misiolariak- parte hartu,...